# Monica, 5.000 neska-mutilen buru

**Maria Auxiliadora ikastolako Monica Ruiz izango da aurten haur danborradako danbor nagusia. 13 urte besterik ez ditu, baina eskarmentua du danborradan.**

Raul Perez eta Xabier Etxabe

**Aurten danbor nagusi izendatu zaituzte. Ardura handia, ezta?**

Oso pozik nago, 5.000 lagun zuzentzea ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula. Aurten ikastolari egokitu zaio danbor nagusia hautatzea. Hiru lagun aurkeztu ginen eta azkenean, okerrik ez bada, ni izango naiz.

**Zure burua aurkeztu duzu danbor nagusi izateko. Horrenbeste maite al duzu danborrada?**

Bai. Pentsa, 7 urte besterik ez nituenean atera nintzen lehen aldiz kantineraz... Oso egun berezia da: bezperan goiz oheratu eta San Sebastian egunean goiz jaiki, ikastolara joan eta hortik Alderdi Ederrera danborra jotzera.

**Nola moldatzen zara ikastolako danborrada zuzentzen?**

Gero eta hobeto ikusten dut nire burua. Hasieran batere ibili gabe egiten genituen entseguak eta ez zen oso erraza. Azken egunetan, ordea, ibiliz aritu gara joka eta modu horretan erosoago nabil.

**Mary Ward-eko Easo Ederra eta jeneralarekin batera, haur danborrako protagonista nagusia zaitugu. Zer esango zenieke Alderdi Ederren bilduko diren gaztetxo guztiei?**

Bada, oso gauza sinplea: beraiek dakiten bezala, danborra jo dezatela.



## Intxaurrakoak jantzi berriekin



Auzoko Intxaurra elkarteko kideak irrikitan dira, San Sebastian eguna noiz iritsiko zain, traje berriak jantziko baitituzte aurten.

San Sebastian egunean, gauerdian, punttu punttuan, Intxaurra elkarteko 88 kideak Valentzia plazatik abiatuko dira, danborrak eta kupelak soinean dituztela. Aurten, danborrada honek bost urte beteko ditu. 1998an, Intxaurdi auzo elkarteak Juan Miguel Bermudez, Eduardo Arandia eta Jose Mari Martin elkartekideak zirikatu zituen danborrada antola zezaten. Esan eta egin: urte horretako irailean KTEren zerrendan zeuden Intxaurrakoak.

Lehen urte hartan, partaide guztiak, danbor joleak zein kupel joleak, sukaldariz jantzita ibili ziren kalerik kale. Aurten, berriz, danbor joleak Napoleonen garaiko jantziekin aterako dira eta bost ekamumezko urkeiariz.

Iazko danborrada bukatu bezain pronto, jantzi berriak lortzeko lanarekin zioten Intxaurrakoek, aurtengo prest egon zitezen. Helburua lortzeko, danborrari bakoitzak bere jantzia ordaindu behar izan du, hilero-hilero diru apur bat aurreratuz.

euskararen donostia patronatua

Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

### Haur jolasak

• Arraunketa eta arrantzaleen jolasen jaia
Urtarrilaren 19an, 16.00etatik 18.00etara
Antiguako Jose Maria Sert plazan

### Ipuinaren ordua

• "Sorginen itzala, beltza eta itzela"
Urtarrilaren 22an, 18.00etan
Casares Kultur Etxean

• "Zuhaitz baten historia"
Urtarrilaren 23an, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

### Zinea

• Euskarazko laburmetralak "Txotx", "40 ezetz", "Topaketa" eta "Basurdea"
Urtarrilaren 25ean, 18.00etan
Egia Kultur Etxean

### Bertsolaritza

• Antiguako jaiak
Jesus Mari Irazu, Sustrai Colina, Maialen Lujanbio, Anjel Mari Penagarikano
Urtarrilaren 17an, 22.00etan
Antiguako frontoian